



## BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

2022ko urtarrilaren 25ean, goizeko 11:30ean, egindako eta honako pertsona hauek osatutako Bozeramaileen Batzordeak:

Jon Iraola  
Ana Telleria  
Josu Mendicute  
Gorka Errasti  
Isabel Fernández

Honako akordio hauek hartu zituen:

Gai ordenean jasotako puntua lantzen hasi aurretik, alkateak galdetu die bozeramaileei nola egin nahi duten urtarrileko Udal Ohiko Osoko bilkura.

Honen gainean, Eibarko PSE-EE, Eibarko EH-Bildu eta Elkarrekin-Podemos Eibar udal taldeetako ordezkariak adierazi dute telematikoki egin nahi dutela. Bere aldetik, Eibarko EAJ-PNV udal taldearen ordezkariak esan du bere taldekideekin aztertuko duela gai hau eta hartutako erabakiaren berri emango duela.

**1.- Elkarrekin-Podemos Eibar udal taldeak aurkeztutako mozioa Osasun Mentalari buruzko Udal Plan bat egiteko.**

Plenora eramatea erabaki da, baina udal taldeek erabaki dute erdibideko testu bat landuko dutela.

## ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

La Junta de Portavoces, en reunión celebrada el 25 de enero de 2022 a las 11:30 horas y con la presencia de:

Jon Iraola  
Ana Telleria  
Josu Mendicute  
Gorka Errasti  
Isabel Fernández

Adoptó los siguientes acuerdos:

Antes de comenzar a abordar el punto recogido en el orden del día, el alcalde pregunta a los/as portavoces la modalidad en la que prefieren que se celebre la sesión plenaria ordinaria correspondiente al mes de enero.

A este respecto, los/as representantes de los grupos municipales PSE-EE de Eibar, Eibarko EH-Bildu y Elkarrekin-Podemos Eibar afirman que prefieren que el pleno se celebre de forma telemática. Por su parte, el representante de Eibarko EAJ-PNV afirma que trasladará esta cuestión al resto de compañeros/as de grupo y que informará de la decisión adoptada.

**1.- Moción presentada por el grupo municipal Elkarrekin-Podemos Eibar para la realización de un Plan de Salud Mental Municipal.**

Se acuerda llevarla a Pleno, si bien los distintos grupos acuerdan trabajar un texto transaccional.



## BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

Gai ordenean jasotako puntuez gain, alkateak 2022ko urtarrilaren 24an egin zen Erakunde Lege eta Lurralde Gaietarako Lan Batzordean aztertu zen puntutako bat jarri du mahai gainean. Zehazki, 2021eko urriaren 25ean Udal Osoko bilkurak hartutako erabakiaren (non Eibarko Udalaren eta Euskal Trenbide Sarearen arteko lankidetzaz-hitzarmena onetsi zen, Eibar-Azitain trenbideak duen trazatuaren hiri-integrazioa hobetzeko) kontra Barakaldo kaleko bizilagunek aurkeztutako berrazterketa-errekurtsoen ingurukoa aipatu du, eta, ildo horretan, proposatu du, Udal Idazkariaren txostenaren arabera, errekurtsoak ezeztatu daitezela epez kanpo aurkezteagatik eta, kasu horretan, legeak ez duelako gaia sakontzera baimentzen.

Dena den, alkateak jakinarazi du Hirigintza saileko lege-aholkulariak errekurtsoak sakonki aztertu dituela eta, ondorioz, bizilagunei txosten bat banatuko zaiela, non hauen azterketa egingo den. Dokumentu hori udal taldeei ere helaraziko zaie.

Azkenik, alkateak mahaiaren gainean jarri du aho-batez 2020ko urtarrilean onartu zen "gerren aurka eta istiluen konponbide baketsua"-ri buruzko mozioa, eta azaldu du Bakearen Aldeko Alkateen plataformaren kide izateak urteko kuota baten ordainketa dakarrela. Gai hau Kontuhartzailletza sailan aztertzen ari dira.

Eta eguerdiko 12:00ak izanik eta gainerako gairik ez dagoenez, Alkateak bilerari amaiera eman dio.

## ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

Fuera de los puntos del orden del día, el alcalde saca a colación uno de los puntos tratados en el seno de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales celebrada el pasado 24 de enero de 2022. En concreto, al hilo de los recursos de reposición presentados por vecinos/as de la calle Barakaldo contra el acuerdo de Pleno Municipal de 25-10-2021 por el que se aprobó el Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Eibar y Euskal Trenbide Sarea para la mejora de la integración urbana del trazado ferroviario de Eibar-Azitain, el alcalde propone que, de conformidad con el informe del Secretario Municipal, se desestimen los recursos por extemporáneos, impidiendo la ley, en esos casos, tratar el fondo del asunto.

En cualquier caso, el alcalde informa de que el asesor jurídico del departamento de Urbanismo ha estudiado los recursos con detenimiento y que, por ello, a los/as vecinos/as se les remitirá un informe en el que se ahondará en el análisis de los mismos. Dicho documento también será enviado a los distintos grupos municipales.

Por último, el alcalde ha puesto sobre la mesa la moción aprobada por unanimidad en enero de 2020 "contra las guerras y por la resolución pacífica de los conflictos", y ha explicado que la adhesión del Ayuntamiento a la plataforma Alcaldes por la Paz supone el abono de una cuota anual, cuya tramitación está analizando el departamento municipal de Intervención.

Y siendo las 12:00 horas, y no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde levanta la sesión.



BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES